



ESKOLA INGURUNEAN JOLAS KOOPERATIBOAK BURUTZEKO METODOLOGIA DIDAKTIKOA

ZER DIRA JOLAS KOOPERATIBOAK?

Taldeko haur guztiak partehartzea eskatzen duten jolas dibertigarriak dira. Ez da inor eliminatzen. Ez dira zigorrik eta bestelakorik jartzen. Ez dute batzuk besteen kontra jolasten.

Alderdi ludikoa inoiz baztertu gabe, jolas hauek izaera didaktiko edo hezitzailea dutela esan daiteke. Talde dinamikak sortzeko abiapuntua izan daitezke.

Jolas kooperatiboak, ohiko jolasetan gertatzen ez den bezala, honako ikuspuntu hauek baztertzen ditu:

- **Lehiakortasuna baztertzen da:** helburua denon artean helmuga batetara iristea izango litzake. Jolasaren egiturak denok partehartzera suposatzen du, konpetibitateak suposatzen duen zama arinduz. Partehartzailearen interesa, partehartzean datza, ez irabaztean.
- **Eliminatzea baztertzen da:** kooperazio jolasa egituratzerakoan, haur guztien partehartzea eskatzen du. Haur guztiak sartzea bilatzen du, ez kanporatzea.

Jolas kooperatiboak, sormena bideratzen dute. Sortzeak, eraikitzea inplikatzeko, eta denon partehartzea ezinbestekoa da zerbait sortu ahal izateko.

Konpetiziozko jolasean gertatzen ez den bezala, jolas kooperatiboak burutzen direnean, ez zaio bakarrik azken xedeari begiratzen, garrantzitsuena partehartzaileek prozesuan gozatzea izango da. Besteekiko lehiakortasuna eta eraso suposatzen duten egiturak desagitea da helburua.

ZERGATIK JOLAS KOOPERATIBOAK ERABILI?

Jolas kooperatiboak burutzen ditugunean, taldean suertatzen diren liskarretan erabiltzeko moduko gaitasunak lantzen dira. Jolasten ari garen bitartean, taldean lan egiteak suposatzen duten onurak eta zailtasunak esperimintatzeko aukera izango dugu.

Elkartasunerako hezten ditugu haurrak. Haurra, gizaki guztiak bezala, afirmazioa behar du. Egiten duena balioa baduela sentitu behar du, gai dela egiteko. Askotan haurrek ez dute bestelako jolasetan parte hartzen, galtzeko beldurra dutelako, edo egiten dutena gaizki egingo dutenaren beldurrez daudelako.

Gaitasun berriak garatu nahi dira, haurrak hausnartzera bideratuz, elkarren arteko errespetua sustatuz, besteak entzunaz eta pentsatzen dutena adieraziz. Modu honetara haurra, taldeko partaide sentituz gero, komunikatzeko gogoia azaldu dezake, bere beldurrak adierazteko edota bizipenak azaltzeko.